

The background of the cover is a soft, misty landscape. On the left, a large, dense tree with many small leaves or blossoms stands against a pale sky. In the foreground, a calm body of water reflects the light. In the distance, there are silhouettes of trees and a low horizon line. A large flock of birds is captured in flight, scattered across the upper right portion of the sky. The overall color palette is muted, consisting of soft blues, greys, and earthy browns.

ZOZABARRAK

Maixa Zugasti

erein

ZOZABARRAK

Perzebal, 50

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko martxoan

Liburuaren diseinua:

Erein argitaletxea

Maketazioa:

A. Beltza | Erein

© Maixa Zugasti

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-011-7

L. G.: D 268-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu

ZOZABARRAK

Maixa Zugasti



1

Tip-tip-tip, ametsen gainean;
tap-tap-tap, teilen azpian

Bada jolasen garai bat, babesarena; doinu alaien aldia da, haurrena, hauskorra.

Zozabarrena, berriz, izuaren garaia izan zen niretzat. Piztiek apurtu egin zuten nire denboraren kolorezko haria, eta bi muturrak dardarka geratu ziren airean.

Adi egon izan banintz, konturatuko nintzatekeen. Aitak segituan ikusten ditu piztien arrastoak basoan: oinatz batzuk, lokatzetan; marruskadurak, enbor batean; usain bat; garo-mugimendu bat, urruanean, txoririk txikiena ere asaldatzeko gai dena. Nik, ez.

Eta ez nintzen ohartu. Beldurra isil-isilik etxe-kotu zen; zokorik ilunenek ere sumatu zuten piztien etorrera. Nik, ez. Ez nituen aztarnak irakurri, eta, agian, horregatik hartu ninduen izuak.

Udaberrikoak dira urte hartako nire oroitzapenik zaharrenak. Itsaso Alemaniara joana zen, ni bakarrik utzita. Amak ere ez zuen asmatzen haren hutsunea betetzen. Horretarako tresnarik egokienak hitzak iruditu zitzaizkion. Irtenbidea egokia, Itsasori telefonoz dei egin izan balio. Are hobea, mezu isilak bidali izan balizkio. Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu.

—*Itsaso urrun batean/ irudimena galdurik/ udaberriko euritan...* —Lehen egunetan, abesti tristeenek bete zuten gure etxea, bebarrutik ganbararaino—... *karta bat idatziko dut/ norbaitek erantzun dezan...* —Aste batzuk geroago, doinu goibeletan kulunkaturiko hitzek talka egiten zuten beren oihartzunekin, zokorik ezkutuenetan ere.

Horrelaxe bete zituen gure amak etxeko isiltasun eta hutsune guztiak apirilean. Itsasoren gela izan ezik. Ahizparen logelak bere horretan jarraitzen zuen, hark utzi bezalaxe.

Aste batzuen buruan, aginduek hartu zuten etxea.

—June, egin al duzu ohea? —Goiz-goizetik hasten zen ama eguna iluntzen.

—June, jaitsi al dituzu arropa zikinak? —Aitak lanera alde egiten zuenean, biderkatu egiten ziren nire eginbeharrak.

Uste dut biok ala biok isilean gordetzen genuela gure ametsa, Itsasoren itzulera.

Orduan, noizean behin, haren izena ere entzungo nuen galdera-aginduen aurretik.

—Itsaso, jasoko al dituzu kulero horiek lurretik?

—Itsaso, zergatik daude gosariko ontziak oraindik mahaian?

Hilabete luzeak falta ziren, ordea, uda iristeko. Hiru hilabete luze. Ekainaren amaieran itzuliko zen, laurogeita hamaika egun beste familia batean igaro ostean. Laurogeita hamaika egun, Itsaso gabe; laurogeita hamaika egun amaigabe, egutegian, aurretik, ezabatu gabe; infinitua bezain amaiezinak izango ziren laurogeita hamaika egun aspergarri, egunerokoan. Horixe pentsatu nuen hegazkina hartu zuen arratsaldean. Gauak ziren, ordea, ilunenak. Apirilean bertan hasi nintzen soinu ezezagunak entzuten; agian, ordura arte, ilunpetako animalientzat, ohikoak. Niretzat, ordea, berriak ziren, eta zergatia bat eta bakarra zen: loa galdu nuen. Horrelaxe esan zidan amak: «loa galdu duzu». Eta nik loa zein zokotan gorde zen jakin nahi nuen, bilatu, aurkitu eta neure barrura itzularazteko. Amak egiten zuen bezalaxe. Bera zen gauza galduen erregina; kromoak, ikastetxeko liburuak, bixiak... , aurkitzeko berezko sena zuen. Egia esan behar badut, ez dakit noiz eta nola galdu nuen loa. Beti bezala, hamarrak aldera, mesanotxeko argia itzali, eta txintxo, begiak ixten nituenean, konturatu gabe hartzen ninduen loak. Baina, bat-batean, nahiz gau batean nahiz goizaldeko ordu txikietan, nire betazalak

zabal-zabalik jartzen ziren, apo-hontzaren moduan. Eta kito! Ametsik ez zen itzultzen.

Orduan hasi nintzen soinu arraroak entzuten. Eta beldurtzen. Itzalek ere izutzen ninduten, baina haiek argia piztu orduko hartzen nituen mendean.

Soinuak ziren arazoa. Haizearen firrinda, adar-hotsa edo ekaitzaren burrunba ezagunak nituen, baina, inoiz entzun gabeko soinu haiek aditzean, gurasoen logelara jaisten hasi nintzen.

—Goazen —esaten zidan ahapeka aitak.

Eta biok nire ohean etzaten ginen, sabai okerrari begira.

—Zer gertatzen da, June?

Eta ni, isilik.

—Zer duzu?

Eta neuk, hitzik ere ez, hamar urte bete berriak nituelako.

—Itxi begi eder horiek...

Argia itzaltzen zuen, eta ni haren besapean kuzkurtzen nintzen, bihotzaren taupadak entzuteko. Aitaxoren bularrak gozo kulunkatzen zidan burua, olatuen moduan, gora eta behera, gora eta behera. Izurdeen arnasa bezalaxe, nirea aitarenera egokitzen zen. Eta, orduan, konturatu gabe, loa nire barrura itzultzen zen.

—Ama, amets gaiztoak...

Aita lanera Txekiara joan zen egun batean, ama esnatu behar izan nuen gauez.

Hogei mailak jaitsi nituen, bizkor, kontatu ere egin gabe.

—Ama...

—Zer gertatzen da, June? —Amaren tximen azpian, loa desagertu egiten zen gelako argia pizten banuen.

—Amesgaiztoa. —Hura zen ama larritzeko hitz magikoa.

Eta biok hogei mailetan gora egiten genuen oinutsik, mantso: bat, bi, hiru...

Nire alboan etzan orduko, amak argia itzaltzen zuen, baina, ilunpean, ipuin bat kontaktzen zidan. Gau batean, ilar bat eta printzesa bat agertu ziren haren kontakizunean.

Printzesa gora, ilarra behera, bion ala bion begiak mozoloenak ziren. Ipuina amaitu arte.

Halako batean, isildu egin zen.

—Ama, entzuten al duzu? —Gau hartan, loa ez zen gure ohean kabitzen.

—Zer?

Orduantxe, gau bare lasaian, garbi eta argi entzun genuen horrenbeste izutzen ninduen soinu arina: tip-tip-tip. Eta handik minutu gutxira: tap-tap-tap.

—Ama, mamuak dabilta —aitortu nion izua.

—June, txolarreak dira —urrundu zuen beldurra.

—Txolarreak?

—Teilatuaren pean, teilen azpian egiten dituzte habiak. Haien pausotxoak dira. Ziur nago geuk esnatu ditugula. Bihar ikusiko ditugu.

—Nola? —Ama teiltatura igo eta teitak altxatzeko gauza zen, azpian zer zegoen ikusteko.

—Bi aulki jarriko ditugu eta burua aterako dugu leihotik. Geldi-geldirik egon behar da. Eta oso adi. Zure bizilagunak hegaldatzen ikusiko dituzu, eta pareko teiltatukoak beren habietara sartzen. Kurloiak lotsagabeak dira; beldurtzen ez badituzu, egunen batean, bero bila sartu eta gela barruan egingo dute habia.

Isilik geratu ginen, soinuei adi. Tip-tip-tip. Tap-tap-tap. Gure bihotzak pausotxoetara egokitzean, loak hartu gintuen. Gau osorako. Eta goizean, elkarrekin gosaldu genuen balkoian. Pareko teiltatuko zuloak batetik, txolarre bat irten zen. Lumak astindu zituen erreteneko uretan, eta, ingurua ziprztindu ondoren, teiltatuaren pean desagertu zen berriro.

Txolarre hark ere, ez zuen oraindik zozabarren berririk. Neuk, ere ez. Udaberria zen orduan, eta nik, ametsetan, egutegian egunak ezabatu besterik ez nuen egiten. Baina garai hartan gertatu zen; Itsasok bakar-bakarrik utzi ninduen udaberrian, izuak hartu ninduen.

2

Haizeak hegaldatutako besana

—June, kanpora, irakurtzera... —Karmele irakaslearen aginduek gonbidapen goxoen doinua zuten.

Eta kanpora irteten nintzen. Neu bakarrik. Liburuaren kapitulua irakurri ez nuelako; irakurtzea gus-tuko ez nuelako; egia esan nuelako. Gelako askok ere ez zuten irakurtzen, baina denek entzun zuten Oierrek ikastetxeko atarian egindako laburpena. Neuk izan ezik. Nik bederatziak puntu-puntu zeharkatzen nuen beti atea, eta, ordurako, sarrera hutsik egoten zen.

Egun hartan ere, esana zintzo betetzeko, kanpora irten eta estalpean eseri nintzen, liburua ipurdi azpian nuela. Zeru zati karratua oskarbi zegoen, eta enaren dantza eroek txilioz janzten zuten aire urdina.

Ni nengoen txokotik ez nituen urmaeleko arrai-nak ikusten. Lasai ibiliko ziren nenufarren azpian. Hego-haizeak gozo kulunkatzen zituen kanaberak.

Halako batean, zuriz jantzitako gizon indartsu bat agertu zen gurpil-aulki bati bultzaka. Arrosalanda-arearen ondoan utzi zuen, eta, han zegoen emakumeari belarrira zerbait esan ondoren, adinekoen egoitza barruan desagertu zen.

—Apatx, hementxe!

Patio karratu hartako ertz batean utzi zituen eskolako irakasleak haurrak, lagunarengana jo aurretik. Ez ninduen ikusi.

Minutu pare bat besterik ez zen igaro. Une laburra, baina mutikoa lau hankan urmaelera gerturatzeko, nahikoa. Oraindik ere, begien aurrean dut umetxoa arrainen mundura bidean.

Ez zegoen inongo babesik, eta harrizko maila txikiak zutitzen lagundu zion mutikoari. Irakasleek, bien bitartean, isildu gabe hizketan jarraitzen zuten. Izutu egin nintzen. Izugarri. Orduan ez zitzaizkidan titiko umeak gustatzen, baina zitzu bizian altxatu nintzen. Galtzarbetik heldu eta putzutik urrundu nuenerako, ordea, eskutxoa busti-bustita zeukan.

—Apatx, hementxe! —esan nion inork ez entzuteko moduan—. Eta kikak? —galdetu nion xuxurlaka.

Asmatu nuen bete-bete; begi-bistakoa zen ahoko minak sortzen ziola kokotsetik behera zihoan lerdea. Lurrean aurkitutako makila ere ahora eraman zuen zuzenean. Pikotxean jarrita, liburua eskaini behar izan nion makila kentzeko. Neure moduan,

muzin egin zion. Mutikoaren irribarrea adi nuen begira, irakaslea larritu zenean:

—Manex, nola etorri zara honaino?

Nik isilik jarraitu nuen, ezpainetara iristen zitzazkidan hitzak irensten.

—Zatoz hona, ipurdi zikin!

Irakaslearen besoen artetik, makila urmaelera erori zen. Artean Manexen irribarre urtsua begira nuela konturatuta, irakasleak ni agurtzeko agindu zion, mukizapi batez begietako makarrak kentzen zizkion bitartean. Sorbalda gainerik jaurtitako hitza hala-hola iritsi zen nireganaino:

—Bur!

Hego-haize zakarraren ufadek urmaelean olatuak sortu zituztenean eraman zituzten haurrak beren gelara. Eta isiltasuna bere lekura itzuli zen, patio txiki karratura. Zeru urrunean, kaioen txilioak mehatxudoinua zuten oraindik.

Pareko emakumeari begiratu nion. Eskuineko oineko zapata lurrean zegoen, erorita, aulkiaren ondoan; besoek magalean hartzen zuten atsedean, ibai zaharren modura amildu ondoren; bularrak eusten zion kokotsari.

«Eta hil egin bada?»: Ahoko zuloan nuen galdera gustura jaurtiko nion, oihu baten indarrez, haren zaintzaileari gertura zedin.

«Hil egin da»: Erantzuna nire barruko ahotsik ilunenarena zen.

«Emakume gaixoa!»: Horixe sentitu nuen, gupida, baina ez nion entzun zitekeen hitzik jarri barruko tristeziari.

Oraindik, izutzen naizenean ez dut zirkinik egiten, geldi-geldi geratzen naiz, atezuan, ikusezin izatearekin ametsetan. Goiz hartan, ezkutuko indarrak esnatu ziren bat-batean, ni baino ausartago. Esnatu eta kezkatu. Horregatik hegaldatu zuen hego-haize zakarrak emakumeak sorbalda gainean zeraman besana. Txori urdin eder baten moduan pausatu zen urmaelaren azalean.

Gerturatu egin nintzen. Arrantzatu nuen artilezko oihala pisutsua zen eta ilunagoa, blai egingdako ilearen modukoa. Ondo estutu nuen eta aulkira gerturatu nintzen. Emakumearen sorbaldan ez nuen arnasaren aztarrenik aurkitu; itsaso barea zirudien, olaturik gabea.

«Hilda dago!», oihu egin zuen berriro nire barruko ahotsak.

Besana aulkitik zintzilikatu nuen, kontuz, oso kontuz, hildako bizkarra ez bustitzearren. Hego-haizeak lehortuko zuen zaintzailea etortzerako.

Kezkak aldentzea eragotzi zidan, ordea, eta, markurtu ondoren, hatz luzeenaz sorbalda ukitu nion. Gorpua eskuin aldera okertu zen.

—Ezin bakean utzi bakean dagoena —zioen amak Itsaso edo aita zirikatzen nituenean.

Goiz hartan, ordea, ez nuen hildakoak kilikatzeke gogorik.

—June, zer zabilta hor? —Karmeleren ezusteko galderak izutu egin ninduen—. Utziko al duzu bakean amona gaixoa?

Harriturik begiratu nion. Ezagutzen ote zuen emakume hura? Ba ote zuen amona haren biloben berririk? Doinu hauskor batek desegin zituen nire gogoetak. Emakumearen ezpain izurtuetatik, doinu ezezagun batek ihes egiten zuen, haizerik isilenaren antzera.

—Mila esker. —Murmurio lotiak amaitutzat eman zuen doinua.

—Ez dago hilda, Karmele! —egin nion pozik oihu irakasleari.

—Isilduko al zara? —Haren begi biribilak izuz betetako bi putzu ziren—. Erotu al zara? Amona gaixoa beldurtuko duzu!

Isilik geratu zen, pentsakor, atsedean hartzeko beharrez.

—Beste ordu laurden bat utziko dizut. Gero, barrura!

Karmele buruari eraginez desagertu zen ikastetxe barruan. Uste dut lotsatuta baino gehiago izututa zegoela, «hil» hitzak sortutako ezinegona baretu ezinik.

Aurkibidea

1. Tip-tip-tip, ametsen gainean; tap-tap-tap, teilen azpian	7
2. Haizeak hegaldatutako besana	13
3. Zozabarren burrunba beldurgarria	19
4. Urmaeleko ezkutalekuak	25
5. Ekaitzaren iluntasun beldurgarria	31
6. Isiltasun zuria teilatuan	37
7. Piztiak, zelatan	43
8. Amaraun-sarean harrapatuta	49
9. Bulego zuriko hitz beltzak	57
10. Mamu bat, aulki hutsean	63
11. Ezusteko desagerpenak	69